

EUSKARAREN ETA KAUKASO-KO HIZKUNTZEN BEREZKUNEAZ

1977-XI-4

Txillardegi

Lehenengo eguneko biltzarrean puntu hau aipatzeko parada izan nuen; eta biltzarraren ondoren jaso ditudan oharrek idarokitzen didatenez, EUSKARA eta KAUKASO-ko HIZKUNTZAK noiz berezi ote ziren delako arazoari buruz lerro hauek egitea egoki gertatuko bide da.

Jakina:

1/ Hemen erabiliko dudan azterpidea (Swadesh-ena) ez da inondik ere "azken hitza". Egia baldin bada, alegia, halako batez Euskara eta Kaukasokoak berezi egin zirela, orduan Swadesh-en legeak berezkune horri buruzko kalkulu bat eskaintzen du.

2/ Swadesh-en hitz-lerrokada horiek (hiruek, egia esan; baina lehenengo biek bereziki) kritika-olatu bat sortu dute. Hemen emango den ondorioa, hortaz, ongi dakit, *gutxi gora-beherako ideia bat* besterik ez da.

3/ Hitz "cognate" delakoen finkaerak ere ba ditu lanak; eta Lafon-ek berak aipatzen ditu oinarritzat hartua dugun bere lan hartan berak zituen *zalantzak*.

Ohar hauek eginda, hortaz, ikus dezagun Swadesh-en legeak zer dioten euskarari buruz.

Hitz "cognate"en bilaketan LAFON hartu dugu gidari: "Etudes Basques et Caucasiques", Salamanca, 1952.

Swadesh-en Legeari dagokionez, berriz:

$$d = \frac{\log c}{2 \cdot \log r}$$

haren HIRUGARREN hitz-lerrokada erabiltzen dugu (lehenengoak urte gutxiago ematen du; baina Swadesh-ek berak utzia du hirugarren honen truke).

Hirugarren hitz-lerrokada erabiliz gero, Swadesh-ek balio hau proposatzen du r -ri buruz:

$$r = 0,854 + 0,004$$

Hortaz: $r_1 = 0,858$; eta $r_2 = 0,850$.

c berriz ("cognate" edo hitz jatorrikideen kopurua, zati hirugarren oinarri-kopurua, 100 alegia) = $n/100$.

n hau Lafon-en lanetik hartzen dugu; eta 6-tatik 9-tara har daiteke; erdibidean $c = 0,075$ hartzen dugularik. (= $(6 + 9)/(2 \times 100)$)

Lafon-ek aurkitu uste zituen hitz jatorrikideak hauek dira:

- 1 - SU (= 'fire', Sw.)
- 2 - GOGO (= 'heart', Sw.)
- 3 - EGU- (= 'sun', Sw.)
- 4 - GU (= 'we', Sw.)
- 5 - ZER (= 'what', Sw.)
- 6 - ASE (= 'full', Sw.)

Sei "cognate" horiek ziurtzat jotzen baditugu ere, ondoko hauek, irakurleak soma dezakeenez, zalantzan jar daitezke, edo aurreko hauen kide direla esan:

- 7 - ASKI, ASKO (= 'many', Sw.)
- 8 - BIDE (= 'path', Sw.; baina alderaketa bitxi batzuen bitartez lortua)
- 9 - GOI (= 'mountain', Sw.)

Hau dela-ta, ez 6 eta ez 9 hartuz gero, 7,5 hartuko dugu hemen; eta, hortaz, $c = 7,5/100 = 0,075$.

Oinarriztat $r = 0,858$ / mila urteko, hartuz gero:

$$\log 0,075 = \bar{2},874 = -1,126$$

$$\log 0,858 = \bar{1},933 = -0,067$$

eta $d_1 = \frac{-1,126}{-2 \cdot 0,067} = 8,4$; eta hortaz 8.400 urte berezkunetik.

Oinarriztat $r = 0,850$ hartuz gero:

$$d_2 = \frac{-1,126}{-2 \quad 0,071} = 7,95; \text{ hortaz } 7.950 \text{ urte berezkunetik hona.}$$

Bien arteko kopurua hartuz gero, berezkunea Kristo aurretikako **-6.200 urtean** jar daiteke.

Ohargarri da honi buruz Pedro de Yrizar-ek berezkune hurbilago bat eman zuela gogoraztea ("Julio de Urquijo" urtekarian, "principios del III milenario" aipatzen zuelarik).

Egia esan, eta Swadesh-en arabera beti, ba dirudi 8.200 urte horiek *goitikako* epe bat dela. Eta berezkunea (Kaukaso tikako etorrera, edo abar) berrixeago izan litekeela.

Aski da r hori txikixeago hartzea (alegia, hitz-bahitura gehixeago gertatu dela pentsatzea); pitin bat bederen 215 hitzen lerrokada erabiltzeko Swadesh-ek berak proposatzen zuen *handiena* bederen ($r = 0,83$) eta hau dugu:

$$d = \frac{-1,126}{-2 \quad 0,08} = 7,05$$

Kalkulu honen arabera, hortaz, berezkunea Kristo aurretikako **5.000 urtean** jarri behar litzateke.

Ba dirudi, beraz, beti Swadesh-en hipotesiaren arabera, euskara eta Kaukaso-ko hizkuntzen berezkunea *urrutienik* Kristo aurretikako SEIGARREN MILAURTEAREN HASTAPE-NEAN jar daitekeela.

Interesgarri izan liteke, agian, dato hau Georgia-ko azter-tzaileei jakin eraztea.